


Kimetz Furundarena Agirre

D maila • 1 saria

Kimetz Furundarena Agirre naiz, 13 urte ditut (14 urte betetzeko aurten) eta aramarra naiz. Nire zaletasunak, kirolak (txirrindularitza, pilota, futbola, xakea...), historia (batez ere Euskal Herrikoa) eta hizkuntza bera dira. Jasotako sariarekin oso gustura nago, konfinamendu garaian gure aiton-amonak bizitakoa kontatu nahi izan dut, orduan asko eta asko ez baitziren beraiekin gogoratu.



Doinua: Ihes betea zilegi balitz

BIZITZAN PRESO

Hamar senide izan gara gu
eta ni hortxe, tartean,
gerra garaia pasa berritan
jatekorik ez gurean,
sei urte soilik beteta neuzkan
artzain joan nintzenean,
eta oraintxe ehun urterekin
zigortu naute etxean

Gaixotasun berri bat hor dago
nondik datorren auskalo
gu bezelako aiton-amonak
izan omen ginen sano!
Orain horrela utzi gaituzte
etxean geld, jan ta lo,
eta iluntze oro leihotik
nork ta guk, jo behar txalo!

BERTSOAK

Lehen, egunero, etxetik kanpo
orduan ni bai oparo!
Orain arau berri hauen erruz,
bizipoz gabe, arraro,
zahartua naiz, baina halere
bizi nahi nuke luzaro,
gure bizitzak zuen zentzua
desagertu da zeharo.

Zergatik egon behar bizirik
bizi hau bada pattala?
Ilusioak bete ezinda
egoera kriminala.
Egunak, baina, pasako dira
hilda bageunde bezala
hobe lukete ongi zaintzea
gure osasun mentala